



Juan Mari Mauleón  
y Mainer Santamaría.

## Maider Santamaría: “zure enpresa egunez egun hazten ari dela ikustea gauza ederra da”

Non garbitzen dituzte manta handiak, edredoiak, eta arropa deseroso eta astunenak?. 1999. urtearen erdialdean Maider Santamariak eta Juan Mari Mauleonek garrantzirik gabeko galdera hau egin zutenean, ezin zuten pentsatu ere egin bi urte eskas beranduago, eurek erantzungo ziotela galdera horri, Oñatin zabaltzen zen lehen tindategia abian jarritz, eta, zenbait hilabete beranduago, ZuriZuri enpresa sortuz. ZuriZuri garbitegi industrialak, hiru urtetan, milaka langileren laneko arroparen garbiketa industrialaren prozesua goitik behera aldatu du.

*"Gure arrakasta handiena, enpresa bezeroetan arropa garbia entregatzeko sistema berria diseinatzea izan da"*



Juan Mari Mauleonek honako hau adierazi du: *"Nire gurasoak jatetxe baten jabe ziren, eta bertako jangelan zikintzen zen arropa guztia garbitzeko garbigailu industrialia erabiltzen zutela ikusita sortu zen ideia. Ikusi genuen zenbait lagunek gure amari bere makinan arropa jakinak garbitzen uzteko eskatzen ziotela. Arropak handiak zirelako, pisutsuak zirelako edo beste hainbat arrazoiengatik ezin zituzten etxeko garbigailuetan garbitu. Premia hori ikusita, Oñatin zabalduko zen lehen tindategia abian jartzea erabaki genuen".*

*"Tindategiarena oso esperientzia positiboa izan zen, garai hartan 11.000 biztanleko hiri ingurunean zegoen bakarra zelako. Hala ere berehala jabetu ginen zabaldu egin behar genuela", erantsi du Mainer Santamariak. "Ikusi genuen, merkatu hura zabala bazen ere, herrira mugatzen zela eta, horregatik, jatetxeen, elkarte gastronomikoen edo enpresa txikien munduan sartzeko aukera aztertu genuen".*

**- Eta horrek, tindatze-lan soila izan zen horretan aurrerapauso handia ematea esan nahi zuen.**

*- Izan ere, industria-eskala batean lan egiten hasi behar genuen - erantzun du Juan Mari Mauleonek-. Jorratu gabeko eremuan sartu behar genuen. Bertan, inguruko zenbait fabrika eta lantegitatik arropa zikina bildu eta garbitzera Gasteizera eramaten zuten bi garraiolari zeuden, Oñati inguruan ez baitzegoen horretan jarduten zuen enpresarik.*

**- Eta orduan zortea zuen alde izan zenuten...**

*- Pertsona horiek, gure interesa ezagututa, euren bezero-zorroa eskaini ziguten, eta Mainerrek eta biok, noski, une horretan bertan onartu genuen. 2001eko ekainean bezero zorroa saldu ziguten, eta 2001eko urrian ZuriZuri sortu genuen.*

Juan Mari Mauleonek azaldu du, bezero-zorro txiki batekin hasteak ZuriZuriri hiru onura nagusi ekarri zizkiola. *"Enpresan gurekin hasi ziren langileek esperientzia oso azkar eskuratu zuten, enpresa martxan jarri*

*genuen lehen hilabetetik gutxieneko fakturazioa izan genuen eta, gainera, edozein enpresaren hastapenean ezinbesteko lan komertziala egiteko lasaitasuna izan genuen.*

**- Hasiera horretan, zein izan zen ZuriZuriren oinarria?**

*- Zalantzarik gabe, bete-betean asmatu genuen, arropa garbitu ondoren, entregatzeko diseinatu genuen sistemarekin. Oso harro gaude.*

**- Non dago berrikuntza?**

*- Enpresa bezeroen aldageletan, apalak ipintzen ditugu arropa bertan antolatzeko. Apal horietan, langile bakoitzak bere jantzi garbiak jasotzeko toki bat gordeta du. Kontuan izan behar da, ZuriZuri heldu arte, laneko ekipoak garbitu ondoren, normalean kutxetan entregatzen zituztela, eta langile bakoitzak berea aurkitu behar zuen bertan. Zenbait lantegitan egoera asko zaildu zen, eta langile batek bere lan-jantzia bilatzen 15 edo 30 minutu eman zitzakeen. Gure sistemak oso harrera ona izan zuen; Fagor Ederlan-eko aldagelan, adibidez, apalak jartzen ari ginenean, langileek zoriondu egiten gintuzten.*

Garbitegi berriak arrakasta izateko aukera bazuen ere, Maider Santamariak gogoratu du ZuriZuriren hasiera oso zaila izan zela, batez ere ikuspegi ekonomikotik. *"Tristeia da, baina gaur egun, gauzak dauden bezala, negozioa zabaltzeko, aldez aurretik baliabideak izan behar dituzu, jasotako laguntzak nahikoak ez direlako. Bestalde, gehiegizko burokraziaren kontua dago. Burokraziak, nire ustez, guztia gehiegi zailtzen du. Ezin da ukatu, hasiera guztiak oso gogorrak direla eta, nik neuk, inori opa ez dizkiodan une txarrak igaro nituela. Ia hiru urte behar izan genituen soldata egonkorra kobratzen hasteko eta, bitartean, zenbait unetan langileei, hornitzaileei, bankuei, zergak eta abar ordaindu behar genituen eta likidezirik ez zegoela ikusten genuen. Hori da gauzarik txarrena. Enpresa finkatu ondoren, guztia erabat aldatzen da. Nik, neurri batean lasaitzea lortu nuen enpresaren salmentekin gastu finkoak ordaintzeko aukera izan genuenean. Oso garrantzitsua da sustatzailea ondo, lasai egotea eta gehiegi ez kezkatzea, horrek, enpresak hobeto funtzionatzen lagunduko duelako. Inori ezin zaio eskatu, sarre-  
rek, bezeroak aurkitzeak edo bihar gertatuko denak norbait etengabe*

***"Gaur egun  
negozioa  
zabaltzeko,  
aldez aurretik  
baliabideak  
izan behar  
dituzu,  
jasotako  
laguntzak  
nahikoak ez  
direlako"***

*kezkatzen duenean, enpresa behar bezala sortu eta abian jartzeko gaitasuna izatea. Motibazioa galtzen duzu eta horrek langileengan eragiten du. Tentsio handia dago eta tentsio horrek ez du behar bezala lan egiten uzten."*


**- Zein neurri hartu beharko lirateke egoera horiek arintzeko?**

*- Nire ustez, - erantzun du Mainerrek- erakundeek ekintzaileekin malguagoak izan behar dute, hauek euren proiektua martxan jartzeko orduan. Ekintzaile batek ezin du ekonomiki porrot egin, edo bere familiaren baliabideak agortu, edozein enpresa proiektu aurrera ateratzeagatik.*



*- Nire iritziz, -adierazi du Juan Mari Mauleonek- proiektu baten lehen bi edo hiru urteetan, sustatzaileek erakundeekin harremanetan egon beharko lukete, adibidez, mundu ekonomikoko aktore nagusiak ordezkatuak dauden mahai batean. Era horretan, eta administrazioek, konpainia berri guztien inguruko beharrezko informazioa bilduta, laguntzeko, ordainketak atzeratzeko, zergak kobratzeko atzerapenetan eta beste hainbat kasutan, mekanismo malguagoak ezarri beharko lituzkete. Ekintzaileei ez zaie euren obligazioetatik salbuetsi behar, ordainketa, enpresa finkatzen hasi arte atzeratzeko aukera ematea besterik ez.*

Maidier Santamariak aipatu du, bere ekintzaile-esperientzian ete-entzako aholkularitzaren premia antzeman duela. *"Puntu honetan, erakundeek mikroete-ei informazioa emateko lana hasi beharko lukete. Ez litzateke lan handiegia izango enpresa horien zerranda egitea eta*





*Administrazioak enpresa horietako bakoitzari laguntza, azoka, diru-laguntza, proiektu, lehiaketa, eta abarri buruzko informazioa igortzea. Herri Administrazioek enpresen aholkulari gisa jardun beharko lukete."*

**- Gaur egun, lehiakortasunaren arloan, zein da ZuriZuriren abantaila nagusia?**

*- Abantaila nagusi bat dugu -berehala erantzun du Juan Mari Mauleonek-. Zerbitzu onena kalitate onenarekin eskaintzen dugu.*

*- Bere garaian, ZuriZurin kalitatearen aldeko apustu argia egin genuen -erantsi du Mainerrek-. Kalitatearen alde egin genuen argi eta garbi, eta ahalegin horretan diru asko gastatu dugu, bai eta lehendabiziko urteetan dirua galdu ere. Orain, horren fruituak jasotzen ari gara, baina hasieran kalitatezko zerbitzua eskaintzeak denbora, lan eta diru asko eskatzen du.*

ZuriZuriko arduradunak azaldu du, konpainiak hain ondo funtzionatzeko beste arrazoi bat enpresaren pertsonala dela. *"Gaur egun garbategian proiektua hasi genuen guztiak gaude lanean, enpresaren premiak handitzen ziren neurrian sartu ziren pertsonak salbuetsita. Beti ahalegindu gara errotazioa saihesten, eta pertsonalari eusten. Gure helburua, ZuriZurin lanean ari diren guztiek proiektua euren bezala uler dezaten lortzea izan da eta orain ere hala da. Enpresan lanean ari diren pertsonak gustura eta eroso badaude, giro hori konpainiaren arlo guztietara zabalduko da. Zentzu horretan esan dezakegu ZuriZuriko langileek gaur egun dituzten lan baldintzak, Euskal Herriko beste edozein tindategi eta garbategirenak baino hobekak direla."*



*"Nire ustez", aipatu du Mauleonek, "enpresa abian jartzeko garaian beste gai garrantzitsua, bertako arlo guztiak ondo definitzea da. Pertsona bakoitzak hasieratik jakin behar du zer egin behar duen, eta horretan jardun behar du buru-belarri. Ekintzaileak berak, edo pertsona-talde txiki batek, enpresaren egitura guztia bere gain hartu nahi badu, berehala nekatuko da, konpainiari, indartzeko denbora eman gabe"*

**- Lehiakortasunaren arloan, Gipuzkoak zein abantaila eskaintzen ditu ZuriZuri bezalako enpresa batentzat?**

*- Gurea bezalako enpresa baten zerbitzuak behar izateko oso aproposak diren metalaren industria ugari daude. Bestalde, ZuriZurirentzako oso lagungarria da gure lurraldeko errepideak eta komunikazio-bideak etengabe hobetzea. Horri esker, toki zailenetan ahalik eta denbora laburrenean arropa garbia banatzeko aukera dugu.*

**- ZuriZuri nora ari da zabaltzen?**



*- Negozio-aukera zabalak aurkitzen ari gara Bizkaian eta Araban.*

**- Zein proiektuekin ari zarete lanean?**



*- Spri-ren bitartez -azaldu du Juan Mari Mauleonek- enpresa Legazpiko 900 metro karratuko pabilioi batera eramango dugu, eta bertan, azken aurrerapen teknikoak izango dituen garbitegia antolatuko dugu. Arloko beste enpresetatik bereizi nahi dugu eta, horretarako, garbitzeko sistema berriak aztertzen ari gara, adibidez, ozono injektzioa edo hotzeko ikuzketa. Halaber, enpresen laneko arropa saltzeko aukera aztertzen ari gara.*

***"Kalitatearen alde egin genuen argi eta garbi, eta ahalegin horretan diru asko gastatu dugu, bai eta lehendabiziko urteetan dirua galdu ere"***





- Badugu, MICen laguntzarekin, proiektu bat abian jartzeko ilusioa, - esan du Mainerrek-. ZuriZuriren frankiziak jartzeko diseinuaz ari gara. Lehendabizi Euskal Herrian eta ondoren estatuan jarriko genituzke.



- Zein gomendio emango zenioke, bere negozioa abian jartzen pentsatzen ari den norbaiti?

- Juan Mari Mauleón: *Inolaz ere ez erlaxatzea eta ahalik eta ahalegin handiena egitea bere proiektua aurrera ateratzen.*

- Maider Santamaría: *Oso une txarrak biziko dituen arren, ilusioa ez galtzea, gogoia eta irmotasuna funtsezkoak baitira. Zure proiektua egunez egun hazten ari dela ikustea gauza ederra da. Nik beti gauza bera esaten dut: gaur nire enpresak porrot egingo balu, bihar beste bat sortuko nuke.*

***"ZuriZurirentz  
ako oso  
lagungarria  
da Gipuzkoako  
errepideak  
etengabe  
hobetzea"***